



**LIZARTZAKO**  
**UDALA**  
**GIPUZKOA**

**UDALAREN OSOKO BILKURAREN AKTA**

**BERTARATUAK**

**alkate-udal burua**

LEIRE GORDO CASTRO

**zinegotziak**

ENEKO ELOLA JAUREGI

MIREN JOSUNE ZUBELDIA

ETXEBERRIA

IGO EIZAGIRRE SAEZ

ENERITZ ITURBE URDALLETA

**IDAZKARIA**

ANA JESUS ZABALA GARMENDIA

Lizartzan, 2018ko abenduaren 20an, arratsaldeko 19:30etan, eta Udaleko alkate udalburua, Leire Gordo Castro izanik, Udaletxeko Bilkura Aretoan bildu dira alboan adierazitako zinegotziak.

Bilkuraren fede ematen du Ana Jesus Zabala Garmendia, udal-idazkari-kontu hartzaileak.

Bilkurari hasiera eman dio presidentek, eta hauek izan dira jorratutako

**GAIK**

**LEHENA. AURREKO BILKURAKO AKTA ONARTZEA.**

Alkateak, aurreko saioaren aktari ezer esatekorik badagoen galdetu du, eta inork ezer esatekorik ez duenez, aho batez onartu da.

**BIGARRENA. ALKATETZA EBAZPENEN BERRI EMATEA**

Udal honi subsidiarioki aplikagarri zaion apirilaren 2ko 7/85 Legearen 22.2 a) artikuluan adierazitako ahalmena gauzatzearren, eta Tokiko Erakundearen Antolakuntza, Funtzionamendu eta Erregimen Juridikoari buruzko Araudia onartzen duen azaroaren 28ko 2568/1986 Errege Dekretuaren 42. artikuluan adierazitakoari jarraiki, Udalburuak Batzarrari jakinarazi dizkio ohiko azken bileraz geroztik hartutako erabakiak:

2018/484 Dekretua

2018/497 Dekretua

2018/534 Dekretua

2018/545 Dekretua

2018/562 Dekretua

2018/569 Dekretua

2018/496 Dekretua

2018/529 Dekretua

2018/542 Dekretua

2018/548 Dekretua

2018/568 Dekretua

2018/571 Dekretua

Jakinaren gainean gelditu da Batzarra.



**LIZARTZAKO**  
**UDALA**  
**GIPUZKOA**

**HIRUGARRENA.- KREDITU GEHIAGARRIEN BIDEZ EGIN BEHARREKO KREDITU ALDAKETARAKO 3 zk.ko ESPEDIENTEA ONESTEKO PROPOSAMENA.**

Udal honetako Aurrekontuari eragiten dion kreditu gehigarrien bidez egin beharreko kreditu aldaketarako espedientea irakurri da.

Idazkari-Kontu hartzaileak egindako txostenak dioenez, aipatutako espedientea aplikagarria zaion araudiari egokitzen zaio, eta zehazki Udal Entitateen Aurrekontuei buruzko abenduaren 19ko 21/2003 foru arauaren 34. artikulua ezarritako beharkizun eta tramiteei.

Era berean, Ogasun Batzordeak egindako aldeko txostena eta onespen proposamena irakurri dira.

Guzti hori kontutan hartuta, honako hau

**PROPOSATZEN DA:**

- 1.- Udal honen aurtengo ekitaldiko Aurrekontuari eragiten dion kreditu gehigarrien bidez egin beharreko kreditu aldaketarako espedientea onestea, proposamenaren eta ondoko laburpenaren arabera:

**KREDITU GEHIGARRIAK FINANTZATZEKO PROPOSAMENA**

KAPITULUA	KONTZEPTUA	KREDITUAK		
		Egungoak	Aldaketak	Behin-betikoak
120.332.10.01	Liburutegiko Laguntzailea. Oinarrizko Soldata	4.188,24	0,05	4.188,29
120.920.10.01	Idazkari-Kontu Hartzailea. Oinarrizko Soldata	13.622,14	24,58	13.646,72
120.920.11.01	Administrari Laguntzailea. Oinarrizko Soldata	11.004,70	116,12	11.120,82
121.153.40.01	Lanetako Ofiziala. Soldata Osagarria	26.720,41	280,56	27.000,97
121.332.10.01	Liburutegiko Laguntzailea. Soldata Osagarria	8.698,53	44,89	8.743,42
121.920.10.01	Idazkari-Kontu Hartzailea. Soldata Osagarria	29.535,69	339,35	29.875,04
121.920.11.01	Administrari Laguntzailea. Soldata Osagarria	25.373,84	295,31	25.669,15
121.920.12.01	Garbitzailea. Soldata Osagarria	10.490,70	108,71	10.599,41
130.230.00.01	Gizarte Langilea	14.108,33	305,40	14.413,73
160.153.40.01	G.S. Lanetako Ofiziala	10.900,00	917,46	11.817,46
211.312.10.01	Osasun Zentruko Mantenimendua	500,00	93,14	593,14
213.153.40.01	Ibilgailuaren Mantenimendua	4.000,00	1.153,21	5.153,21
221.165.00.01	Argiteria Publikoa	25.000,00	1.341,21	26.341,21
221.320.10.01	Eskolako Jangelako Argi Indarra	700,00	102,22	802,22
221.342.00.04	Kirol Instalazioen Kalefazioa	500,00	38,27	538,27
226.341.00.01	Udalak Antolatutako Ekintzak	8.000,00	1.350,00	9.350,00
226.920.00.04	Aholkularitza Juridikoa	8.000,00	167,56	8.167,56
227.151.00.01	Proiektuak eta Lan Teknikoak	3.000,00	2.662,69	5.662,69
421.414.00.02	Tolosaldeko Landa Garapen Elkartea. IKT	3.120,00	118,30	3.238,30
430.410.00.01	Menditako Batzordea	12.335,18	1.102,20	13.437,38



**LIZARTZAKO**  
**U D A L A**  
**GIPUZKOA**

480.230.00.01	Familiei Laguntzak	1.000,00	320,00	1.320,00
481.335.00.01	Erakundeei Laguntzak	10.000,00	50,24	10.050,24
601.410.00.01	Inbertsioak. Herri Bideak Asfaltatzea	0,00	38.968,78	38.968,78
<b>GUZTIRA</b>		<b>230.797,76</b>	<b>49.900,25</b>	<b>280.698,01</b>

**KREDITU GEHIGARRIAK FINANTZATZEKO PROPOSAMENA**

KAPITULUA	KONTZEPTUA	KREDITUAK		
		Egunoak	Aldaketak	Behin-betikoak
870.000.00.01	Diruzaintzako Remanentea	54.280,40	49.900,25	104.180,65
<b>GUZTIRA</b>		<b>54.280,40</b>	<b>49.900,25</b>	<b>104.180,65</b>

2.- Jendaurrean ikusgai jartzea, erreklamazioen ondorioetarako. Erreklamaziorik aurkezten ez bada, erabaki hau behin-betikotzat joko da. Espediente honi Aurrekontu Orokorra onesteko ezarritako gainerako tramiteak eman beharko zaizkio.

**LAUGARRENA.- IBILGAILU BERRIAREN EROSKETA. ADJUDIKAZIOA**

**LEHENENGOA.** Alkatetzak atzeman zuen Herri Lanetarako Ibilgailu bat erostea kontratatu behar zela.

**BIGARRENA.** Kontratuaren ezaugarriak kontuan hartuta, Alkatetzaren ustez, Prozedura Irekia sinplifikatua laburtua da egokiena.

**HIRUGARRENA.** 2018ko azaroaren 21ean kontu-hartze txostena igorri zen, kontratazioa indarrean dagoen aurrekontuaren errekurtsio arrunten zer ehuneko izango den azalduz.

**LAUGARRENA.** 2018ko azaroaren 21ean aplikatu behar den legeriari, jarraitu behar den prozedurari, eta kontratua onartzeko eta esleitzeko organo eskudunari buruzko idazkaritzaren txosten-proposamena igorri zen.

**BOSGARRENA.** Alkatetzaren 2018ko azaroaren 21eko ebazpenaren bidez, adierazitako kontrataziorako espedientea hastea erabaki zen, proposatutako kontratazioaren beharra eta egokitasuna adieraziz.

**SEIGARRENA.** 2018ko urriaren 22an kontratuaren esleipena arautzeko administrazio-klausula berezien eta baldintza teknikoaren agiria idatzi ziren, eta espedienteari erantsi.

**ZAZPIGARRENA.** 2018ko urriaren 25ean udal batzarraren erabakiaren bidez espedientea eta Herri Lanetarako Ibilgailu bat erostea, prozedura irekia sinplifikatua



**LIZARTZAKO**  
**U D A L A**  
**GIPUZKOA**

laburtuaren bidez esleitzeko administrazio-klausulen agiriak onartu ziren, eta, era berean, hornikuntza-kontratua esleitzeak berekin dakarren gastua baimendu.

**ZORTZIGARRENA.** 2018ko azaroaren 28an, kontratatzailearen profilean argitaratu zen prozeduraren irekiera.

**BEDERATZIGARRENA.** 2018ko abenduaren 19an, espedientean idatziz jasota dauden eskaintzak egiaztatu egin ziren.

**HAMARGARRENA.** 2018ko abenduaren 28an eskaintzen balorazioa eta adjudikazio proposamena jaso zen, ALDIKAR AUTOAK, S.L.ren alde, bera izan delako puntuazio onena lortu duena, 66,67 puntu.

### **EBAZPENA**

**LEHENENGOA.** Herri Lanetarako Ibilgailu bat Erosteko kontratuaren esleipena, Jardunbide Ireki sinplifikatua laburtuaren bidezkoa, ALDIKAR AUTOAK, S.L.ren alde onartzea. Prezioa: 16.607,44 € gehi (3.487,56 (Bez), guztira: 20.095,00 €. Ibilgailu zaharregatik eskaintza: 1.000,00 €.

**BIGARRENA.** Gastua gertu edukitzea, 2019 urteko aurrekontuaren kontura.

**HIRUGARRENA.** Esleipendunari eta prozeduran parte hartu duten beste lizitatzaillei erabaki honen berri ematea.

**LAUGARRENA.** Herri Lanetarako Ibilgailu bat Erosteko kontratuaren esleipena, Jardunbide Ireki sinplifikatua laburtuaren bidezkoa, argitaratzea kontratugilearen profilean.

**BOSTGARRENA.** Leire Gordo Castro, Alkatea, baimentzea, administrazio kontratua sinatu ahal izateko.

### **BOSGARRENA.- 2019 URTERAKO AURREKONTU OROKORRA. PLANTILLA ORGANIKOA ETA LANPOSTUEN ZERRENDA**

Ekonomi Batzordean aztertuz gero eta, Hazienda Lokalak erregulatzen dituen Abenduaren 28ko 39/1988 Legearen 149-4 artikulua eta Erregimen Lokaleko Oinarriak Arautzeko Apirilaren 2ko 7/1985 Legearen 90.1 artikulua eta Erregimen Lokaleko gaietan Apirilaren 18ko 781/1986 Erret Dekretu Legearen 126.1 artikuluen arabera, 2019 urterako Aurrekontu Orokorra aurkeztu da, honela geldituaz:



**LIZARTZAKO**  
**U D A L A**  
**GIPUZKOA**

**SARRERAK**

Kapitulua	Izena	€ Guztira/
1	Zuzeneko Zergak	122.760,75
2	Zeharkako Zergak	1.000,00
3	Tasak eta Bestelako Zergak	82.150,38
4	Transferentzi Arruntak	500.088,87
5	Ondare Sarrerak	0,00
7	Kapital Transferentziak	0,00
9	Pasibo Finantzarioak	0,00
<b>SARRERAK GUZTIRA</b>		<b>706.000,00</b>

**GASTUAK**

Kapitulua	Izena	€ Guztira
1	Pertsonal Gastuak	231.299,96
2	Gastuak Ondasun Arrunt eta Zerbitzuetan	318.578,44
3	Finantza Gastuak	0,00
4	Transferentzi Arruntak	109.446,60
6	Inbertsioak	46.675,00
9	Pasibo Finantzarioak	0,00
<b>IRTEERAK GUZTIRA</b>		<b>706.000,00</b>

**2019 URTERAKO PLANTILLA ORGANIKOA**  
**KARRERAKO FUNTZIONARIENTZAT GORDETAKO LANPOSTUAK**

IZENA	Lanp. Kop.	T.6/89 L. 43. Art.	Egoera	%
<b>IZAERA NAZIONALEKO FUNTZIONARIAK</b> Idazkari-Kontuhartzaitzaren Azpimaila <b>IDAZKARI-KONTUHARTZAILEA</b>	1	A1/A2	J	70%
<b>ADMINISTRAZIO OROKORRAREN MAILA</b> Laguntzaileen Azpimaila <b>ADMINISTRAZIO OROKORREKO LAGUNTZAILEA</b>	1	C2	J	
<b>ADMINISTRAZIO BEREZIAREN MAILA</b> Azpimaila Teknikoa <b>* Mota: Erdiko Teknikariak</b> <b>GIZARTE LANGILEA</b>	1	A2	H	36%



**LIZARTZAKO**  
**U D A L A**  
**GIPUZKOA**

Administratiboa/ <b>* Mota: Laguntzailea</b> LIBURUTEGIKO LAGUNTZAILEA Zerbitzu Bereziak <b>*Mota: Ofizioetako Pertsonala</b> ZERBITZU ANITZETARAKO OFIZIALA GARBITZAILEA	1	C2	J	40%
	1	C2	J	
	1	E	J	

**2019rako LANPOSTUEN ZERRENDA**

**KARRERAKO FUNTZIONARIOEI ERRESERBATUTAKO LANPOSTUAK**

Lanp. Izena	Esk	Azpi-es	Titulaz.	S.P.	Ded.	Taldea	Maila	Os. Esp	H.E.	Der. Dat	Egoera
IDAZKARI-KONTU HARTZAI	Adm. O	F.H.N.	P Zient-Zuzenb. Diplomataua	C	% 70	A1-A2	23	18480,42	4	91-02-06	Aktiboa
ADMINISTRARI LAGUNTZAIL	Adm. O	Lagunt	Eskola Grad. edo LH1	C	%100	C2	14	18906,72	3	91-02-06	Aktiboa
GIZARTE LANGILEA	Adm. B	Teknik.	Diplomataua	C	% 38	A2	17		3	91-12-01	Hutsa
LANETAKO OFIZIALA	Adm. B	Zer.Ber	Eskola grad. edo LH1	C	%100	C2	16	19020,68	2	91-02-06	Aktiboa
LIBURUTEGIKO LAGUNTZAI	Adm. O	Lagunt	Eskola Grad. Edo LH1	C	%41,8	C2	13	6058,08	3	96-04-01	Aktiboa
GARBITZAILEA	Adm. B.	Zer. Ber	Eskola graduat	C	%55,8	E	8	8.163,26	2	92-05-01	Aktiboa

**BEHIN-BETIKO LAN PERTSONALARI ERRESERBATUTAKO LANPOSTUAK**

Lanp. Izena	Esk ala	Azpi esk	Titulazioa	S.P	Ded	Ta	Maila	Os. Espez.	H.E.	Derr. Data	Egoera	Best. Otros
GIZARTE LANGILEA	Adm Ber	TEK N	Diplomad	C	% 38,01	A2	13	Ez/No	3	91-12-01	Mugagab	

2019 urterako Aurrekontu Orokorra eta Aurrekontu Exekuziorako Udal Arauak, 2019ko Plantilla Organikoa eta Lanpostuen Zerrenda batzarrera hurbildutako lau zinegotzien aldeko botoa eta beste baten aurkako botoekin, gehiengo absolutuarekin onartuak izan dira.

Josune Zubeldia zinegotziak, aurkako botoa ematearen arrazoiak adierazten ditu:



**LIZARTZAKO**  
**UDALA**  
**GIPUZKOA**

Nik, Josune Zubeldia Etxeberriak, adierazi nahi dut 2019. urterako aurrekontuak ez ditudala onartzen. Horren arrazoia da, legegaldi honetako proiektuetako bat Herriko Uraren Kudeaketa ez dela burutu, ez eta sakon aztertu ere. Eta hare gehiago esan nahi dut, gai hau ez jorrazeko erabakia Udal Taldetik kanpo hartu dela, neri horren berri ez zaidala eman, haik eta azken astean galdetzean Enekoren aldetik ezetza jaso arte, inungo azalpenik eman gabe gainera eta gainerako Udal Taldekide guztien isiltasunarekin, guztiek jakinaren gainean zeudela ikusi zelarik.

Bitartean Gipuzkoako Urak- eri urtero 46.000 € emanez, eta herritarrei herriko ura baino askoz kalitate txarragoko ura hornitu zaielarik. Herriko ura hartu ezkeru ur osasuntsuagoa eta diru gutxiago gastatuko litzakeelarik

#### **SEIGARRENA.- EUSKERAREN ERABILERA PLANA**

Udaleri Euskaldunen Mankomunitateak eta Lizartzako Udalak landutako plan hau ikusi da:

- 1.- VI. Plangintzaldirako (2018-2022) Euskararen Erabileraren Plan Estrategikoa, Udaleko euskararen erabileraren diagnostikoa egin ondoren eta Bikain ebaluazio prozesuaren Erreferentzia Marko Estandarrari jarraituz egin dena.

Kontuan izan da Euskararen Erabileraren Plan Estrategikoa Eusko Jaurlaritzako Hizkuntza Politikarako Sailburuordetzara (HPS) bidali dela eta, haiek plana aztertu ondoren, begi onez ikusi dutela Lizartzako Udalak egin duen plan-proposamena, eta aldeko txostena bidali dutela Udalera.

**Lehena.-** Onestea Lizartzako Udalaren Euskararen Erabilera Normalizatzeko Plana 2018-2022 (VI. Plangintzaldia).

**Bigarrena.-** Akordio hauek jakinaraztea Eusko Jaurlaritzako Herri Administrazioetan Hizkuntza Normalizatzeko Zuzendaritzari eta UEMari.

#### **ZAZPIGARRENA.- MOZIOAK**

##### **BASO POLITIKA BERRI BATERAKO URRATSA**

- 1.- Lizartzako Udalak herriko baso publikoak airez ez fumigatzeko eskaria luzatuko dio Gipuzkoako foru Aldundiari.



**LIZARTZAKO**  
**U D A L A**  
**GIPUZKOA**

- 2.- Lizartzako Udalak herriko baso publikoetan eredugarri izan al daitekeen baso kudeaketa berri bat bultzatuko du. Bioaniztasunean eta bertako espezieetan onarritutako baso kudeaketa sostengarri bat.
- 3.- Lizartzako Udalak Gipuzkoako Foru Aldundiari 2019an planifikaturik daukan airezko fumigazioa aurrera ez eramatea eskatzen dio, arrazoi hauengatik:
- \* Atlantiar isurialdean dauzkagun euri jaso ugariak, airetik botatako oxido cuprosoa eta berarekin batera botatako olio mineralak, pinudien gaitzei ez ezik beste bizidun ugariri kalte egin diezaioke, gizakia barne. Hauen artean, mendiko putzu txikietan ugaltzen diren anfibioak, ihandreak, arrabioak eta igel mota ezberdinak eta Europa maialan babestutako liken, goldio, alga eta onddoak.
  - \* Lizartzako iturrietako ura, edaten dugun ura, menditako akuiferoetatik hartzen ditugula izaera karstikoagatik. Izaera karstikoa horrek lurpean aurkitzen diren zirrikituetatik betetzen dira eta Kobrea metal astuna izanik, ez da degradatzen eta edan behar dugun akuiferoetara bideratuko da goiz edo berandu.
  - \* Baso politika berri baten lehen urrats bezala. Bioaniztasuna eta etorkizun sostengarri bat bermatuko duen baso politika bat.

4.- Lizartzako Udalak Estatuko Nekazaritza Ministerioa informatuko du mozio honetaz.

AINHOA-IÑAKI – ADIERAZPENA

Lizartzako Udal batzarrak, Iñaki eta Ainhoari gure elkartasuna eta babesa helarazi nahi diegu modu pertsonal batean. Mina eta sufrimendua eragiten duten eogerei aurre egin behar aez diogu inori desio. Horregatik, funtsezko iruditzen zaigu, herritar guztien eskubideak ziurtatuko dituen justizia demokratikoa baliatuz bidezko ebazpenak bermatzea.

Era berean, ardura publikoak ditugunoi, interes orokorraren eta elkarbizitza sozial eta politikoaren defentsan jardutea exijitu behar zaigu. Uneak arduraz jokatzea eskatzen du eta hala dagokigu.

Instituzioetan ardurak ditugunok politika interes pertsonaletatik kanpo utzi behar dugu. Hau kontuan izanik, egindako irakurketa ez litzake interes politikoetarako erabili behar.





**LIZARTZAKO**  
**U D A L A**  
**GIPUZKOA**

Arazoa berbideratzeko eta soluzioak bilatzeko garaiz gaude eta aukera badugu. Gai guztietan bezala, honetan ere gipuzkoar guztientzat onena izango den soluzioa aurkitu behar dugu, konfrontazioaren bidea baztertuz.

Ainhoa-Iñaki buruzko adierazpena, aztertu eta eztabaidatu ondoren, aho batez onartua izan da.

SARE HERRITARRAREN MOZIOA

Gure udalerrian, egun, preso daudenak hauek dira:

Garikoitz Etxeberria, Sevillako kartzelan, etxetik 968 kilometrotara aurkitzen da eta aitor Agirrebarren Beldarrain, El Puerto de Santa Mariako kartzelan dago, etxetik 1013 kilometrotara.

Ondorioz, Udalbatzak honako mozioa onartzen du:

Lege Orokorrean askatasuna kentzeko zigorrak betetzean deserrotzea saihesteko ezarritakoa kontuan izanik, zigor horien bergizarteratzen printzipioen arabera, adierazten dute ez daudela dos urruntz espetxe-politikarekin. Alde horretatik, ETAre indarkeriaren behin betiko etenak irekitako garai berriaren barruan, uste dute espetxe-politika berri bat behar dela, hain zuzen ere presoak zigorrak gizarte- eta familia-erroak dituen lekutik urrun betetzea saihesten duen politika bat, zeinak erraztuko baitu bere senideekin harremana izatea, bere seme-alaba adingabeen ongizatera begira eta horiek gurasoekin egoteko duten eskubidearen alde.

Eta beste gairik ezean, alkateak amaitutzat eman du bilkura, ilunabarreko zortzitan, eta nik, idazkari naizen aldetik, horren fede eman dut.

**ALKATEAK**  
Izpta: Leire Gordo Castro

**IDAZKARI-KONTU HARTZAILEAK**  
Izpta: Ana Jesus Zabala Garmendia